ALDE ZAHARRA
ALDE ZAHARREKO JAI BATZORDEA
COMISIÓN DE FIESTAS DEL CASCO VIEJO

2026ko Aldapako San Fermin jaien kartel lehiaketaren oinarriak

Bi kategoria izango dira lehiaketan eta biek oinarri berdinak bete beharko dituzte:

- 15 urtetik aurrera (15 barne).
- 15 urtetik behera.

Oinarriak:

- Jatorrizko lanek Din A-3 tamaina izan beharko dute, bertikalean.
- Kartela hainbat koloretan egina izan ahalko da.
- Ez dira onartuko adimen artifizialaz sortutako kartelik.
- Parte hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ditzake.
- Lanak aurkezteko modua:
  - 15 urtetik gorakoak: jatorrizko lanak formatu fisikoan aurkeztu beharko dira, eta egileak kopia bat izan beharko du formatu digitalean, irabazle suertatuz gero Jai Batzordeari emateko.
  - 15 urtetik azpikoak: jatorrizko lanak formatu fisikoan aurkeztu beharko dira.
- Abuztuaren 17 eta 18an Auzoenean aurkeztu beharko dira (Aldapa k. 3-5) 18:00h-20:00h bitarteko ordutegian.
- Kartel irabazleen jabetza Jai Batzordearenak izango dira, eta hauek erabiltzeko eskubide osoa izango du.
- Kartelak **testu hau** eduki beharko du:

ALDAPAKO SAN FERMIN - SAN FERMIN DE ALDAPA
Irailak 25, 26, 27 septiembre 2025
Antolatzailea: Alde Zaharreko Jai Batzordea.
Organiza: Comisión de Fiestas del Casco Viejo

- Kartelak plika sistema bidez aurkeztu beharko dira. Originala, izendatutako sobre batean sartu beharko da eta izen bereko beste sobre batean, egilearen datuak (izen-abizenak, helbidea eta telefonoa).

Lehiaketaren sariak:

- **1. Saria:** 400€ eta 50€tako bonoa Santo Domingoko merkatuan erabiltzeko.
- **Txikien saria:** 100€tako bonoa egitarauan iragarkia duten edozein auzoko dendan erabiltzeko.

Kartel irabazlearen hautaketa:

- Jai Batzordeak aurre-hautaketa bat egin ahal izango du lehiaketara aurkeztutako lanen artean. Aurre-hautatutakoen artean, sistema misto baten bitartez aukeratuko da kartel irabazlea: herri bozkaketa (%40), aditu talde baten balorazioa (%40) eta Jai Batzordearena (%20).
- Jai Batzordea behin hautaketa eginda jarriko da harremanetan irabazleekin.